



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 29a

57. ZK.

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/CCOI-00005. «Nafarroako Kontseiluaren urteko kontuak, 2024» fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CCOI-00005. «Nafarroako Kontseiluaren urteko kontuak, 2024» fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak «Nafarroako Kontseiluaren urteko kontuak, 2024» fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA**

## ORRIALDEA

I. SARRERA .....	4
II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA .....	4
III. IRITZIA.....	4
III. 1 Urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia.....	5
III.2 Legeria betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia.....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA.....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	5
VI. NAFARROAKO KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA .....	5
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	5
VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA .....	6
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2024KO URTEKO KONTUEN LABURPENA.....	7
1.1 2024ko aurrekontu-likidazioaren egoera-orria.....	7
1.2 Aurrekontu-emaiza.....	7
1.3 Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria .....	8
1.4 Egoera-balantzea .....	8
1.5 Ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua .....	9
1.6 Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.....	9
1.7 Eskudiru-fluxuen egoera-orria .....	9
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUA.....	10
3. GEHIGARRIA. ARAUDIA .....	10
4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	10

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2024rako fiskalizazio-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren (aurrerantzean, Kontseilua) 2024ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Landa-lana 2025eko otsailean egin du lantalde batek, zeina osatu baitute auditoretza-teknikari batek eta auditore batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzak ere izan dute.

Eskerrak ematen dizkiegu Kontseiluko langileei lan hau egitean emandako laguntzagatik.

Lan honen emaitzak Nafarroako Kontseiluko lehendakariari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea amaitu da, eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

## II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Kontseiluaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuen gainean egin da finantzei eta legeria-betetzeari buruzko fiskalizazioa, honako hauei buruzko iritzia emate aldera:

- Ea 2024ko ekitaldiko urteko kontuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Kontseiluak 2024ko abenduaren 31n zuen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urte-ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere jarraituz aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideei.

- Ea Kontseiluaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Lanaren norainokoa Nafarroako Kontseiluaren 2024ko urteko kontuak dira, zeinek egoera-orri hauek barne hartzen baitituzte:

- Aurrekontu-likidazioaren egoera-orria.
- Egoera-balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketaren egoera-orria.
- Diru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2024ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira egin beharreko egiaztapenak, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

## III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Kontseiluaren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatzen dituzte kontu horiek: 2024ko abenduaren 31ko balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontuak, ondare garbian izandako aldaketaren egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontu-likidazioaren egoera-orriak eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkiak. Orobat, fiskalizatu du ea Kontseiluak legeria bete duen 2024ko ekitaldian.

### III. 1 URTEKO KONTUEI BURUZKO FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritziz, 2024ko ekitaldiko urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute, alderdi aipagarri guztietan, Kontseiluak 2024ko abenduaren 31n zuen ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urte-ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren arau-esparruari jarraituz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

### III.2 LEGERIA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIO-IRITZIA

Gure iritziz, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Kontseiluaren 2024ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat dato, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

## IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa; zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legeria-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera. Halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak beharago deskribatzen dira, "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urteko kontuei eta legeria betetzeari buruz gure txostenean eginiko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Entitatearekiko independenteak gara, urteko kontuez eta legeria betetzeaz egin dugun fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunekin eta independentzia-babesaren arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jardueraren gaineko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du finantzei eta legeria betetzeari buruzko gure iritzirako.

## V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak 2024ko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuei buruzko gure iritzia ta-  
tutzean, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu gure fiskalizazioan ez daukagula jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

## VI. NAFARROAKO KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA

Kontseiluko lehendakariaren erantzukizuna da urteko kontuak egitea, eta Osoko Bilkurari aurkeztu behar dizkio onesteko. Kontseiluko legegariak prestatzen ditu kontuak, eta irudi zehatza eman behar dute Kontseiluaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei buruz, aplikatzekoa den informazio finantzarioko araudiari jarraituz. Orobat bermatu behar du aipatu kontuetan agertzen diren jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu moduzko ziurtasun bat lortzea urteko kontuetan oro har iruzur edo errore onoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan agerturiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat etortzeaz aplikatu behar den araudiarekin; hori guztia erregulartasunaren fiskalizazio-txosten bat emate aldera, zeinetan jasoko baita gure iritzia.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik akats material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izaten ahal dira, bai eta legeria ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta betiere zentzutasunez aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaile direnen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeria ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta gure iritziari oinarri emateko behar adinako eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Iruzuraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurak bere barne izan dezake kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolarengandiko ihesa.
- Barne-kontrolari buruzko ezagutza, fiskalizatorako esanguratsua, lortzen dugu, xede hartuta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzea, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko.
- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak egokiak diren eta ea egokia den kudeaketa-organoak emandako informazioa.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertzen dugu ea urteko kontuek zehatz azaltzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.
- Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara; besteak beste, planifikatutako auditoretza-proben norainokoari eta egite-uneari dagozkien gaietan, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuei eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri dagozkienetan ere.

### VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Indarrean jarraitzen dute aurreko ekitaldietako fiskalizazio-txostenetan egindako gomendio hauek, eta iruditzen zaigu lehentasunezkoa dela horiek betetzea:

- *Langile-gastuen 1. kapituluaren erregistratzea Kontseiluko kideek txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik jasotako konpentsazioei buruzko zenbatekoak, norberaren lanetik zuzenean eratorritako kontraprestazioak baitira.*
- *Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako aplikazio informatiko bat ezartzea.*

2025eko ekitaldian zehar, Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregelamendua onetsi da, zeinak aurrekusten baitu legelari nagusiaren postua sortzeko eta betetzeko aukera. Postu hori izendapen libreko zuzendaritza-postutzat jotzen da, eta, beraz, jada ez da aplikagarria honako gomendio hau: *“Nafarroako Kontseiluko plantilla organikoan dagoen lanpostu hutsa betetzeko deialdia egitea, sortu zenetik zerbitzu eginkizunetan bete baita, lanpostu hori behin betikoz bete izan dadin deialdi publikoan, aplikatzekoa den araudiaren arabera”*.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko apirilaren 8an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

**1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2024KO URTEKO KONTUEN LABURPENA****1.1 2024KO AURREKONTU-LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA****Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea**

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobran-tzak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	456.560	456.560	413.081	413.081	90
7. Kapital-transferentziak	28.000	28.000	10.201	10.201	36
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>484.560</b>	<b>484.560</b>	<b>423.282</b>	<b>423.282</b>	<b>87</b>

**Gastu-aurrekontuaren betetzea**

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordain-ketak	Betetzea (%)
1. Langileria-gastuak	223.094	223.094	166.100	166.100	74
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	233.466	233.466	120.253	120.253	52
6. Inbertsio errealak	28.000	28.000	10.201	10.201	36
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>484.560</b>	<b>484.560</b>	<b>296.553</b>	<b>296.553</b>	<b>61</b>

**1.2 AURREKONTU-EMAITZA**

Kontzeptua	2023				2024			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doitzeak	Aurrekontu-emaizta	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doitzeak	Aurrekontu-emaizta
a. Eragiketa arruntak	403.765	290.967		112.798	413.081	286.353		126.729
b. Kapital-eragiketak	612	612			10.201	10.201		
c. Merkataritza-eragiketak								
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b+c)	404.377	291.579		112.798	423.282	296.553		126.729
d. Finantza-aktiboak								
e. Finantza-pasiboak								
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)								
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta (I=1+2)	404.377	291.579		112.798	423.282	296.553		126.729
Doikuntzak								
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakina-rekin finantzatuak								
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbi-deratze negatiboak								
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbi-deratze positiboak								
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)								
<b>Aurrekontu-emaizta doitua (I+II)</b>				<b>112.798</b>				<b>126.729</b>

## 1.3 DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2023	2024
1. (+) Funts likidoak	117.794	131.387
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	82	1
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	-	-
(+) Aurrekontu itxietakoak	-	-
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketekoak	82	1
(+) Merkataritzako eragiketekoak	-	-
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	5.078	4.660
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	-	-
(+) Aurrekontu itxietakoak	-	-
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketekoak	5.078	4.660
(+) Merkataritzako eragiketekoak	-	-
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak	-	-
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-	-
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-	-
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	112.798	126.729
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	-	-
III. Saldo kobragaitzak	-	-
<b>IV. Atxiki gabeko diruzaintzako gerakina =(I-II-III)</b>	<b>112.798</b>	<b>126.729</b>

## 1.4 EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa	2023	2024
Ibilgetu garbia	10.894	17.059
Altzariak eta tresneria	696	3.408
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	10.198	13.651
Aktibo zirkulatzaila	117.876	131.388
Diruzaintza	117.794	131.387
Epe laburreko zordunak	82	1
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>128.770</b>	<b>148.447</b>

Ondare garbia eta pasiboa	2023	2024
Ondare garbia	123.692	143.787
Ekitaldiko emaitza	112.798	126.729
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteko daudenak	10.894	17.059
Epe laburreko hartzekodunak	5.078	4.660
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela-eta	5.078	4.660
<b>Ondare garbia guztira eta pasiboa</b>	<b>128.770</b>	<b>148.447</b>

## 1.5 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

Zorra	2023	2024	Hartzekoa	2023	2024
Langile-gastuak	161.914	166.100	Diru-sarrera finantzarioak	-	-
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	129.053	120.253	Transferentzia arruntak	403.765	413.081
Amortizazioa	7.004	4.036	Ibilgeturako dirulaguntzaren emaitzen egozpena	7.004	4.036
<i>Aurrezkia (emaitza positiboa)</i>	112.798	126.729			
<b>Guztira</b>	<b>410.769</b>	<b>417.118</b>	<b>Guztira</b>	<b>410.769</b>	<b>417.118</b>

## 1.6 ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

Deskribapena	Sortutako ondarea	Beste ondare-gehikuntza batzuk	Guztira
Ondare garbia, 2023ko ekitaldiaren bukaeran	112.798	10.894	123.692
Ondare garbian izandako aldaketak, 2024ko ekitaldikoak	13.931	6.164	20.095
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	126.729	-4.036	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-112.798		
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk		10.201	
<b>Ondare garbia, 2024ko ekitaldiaren bukaeran</b>	<b>126.729</b>	<b>17.059</b>	<b>143.787</b>

## 1.7 ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2023	2024
<b>I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
<b>A) Kobrantzak</b>	<b>260.953</b>	<b>274.167</b>
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	260.953	274.167
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	-	-
6. Beste kobrantza batzuk	-	-
<b>B) Ordainketak</b>	<b>-248.914</b>	<b>-250.373</b>
9. Hornikuntzak	42.527	56.128
10. Beste kudeaketa-gastu batzuk	108.920	81.528
13. Beste ordainketa batzuk	97.467	112.717
<b><i>Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)</i></b>	<b><i>12.039</i></b>	<b><i>23.794</i></b>
<b>II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
<b>C) Kobrantzak</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
1. Inbertsio errealeen salmenta	-	-
<b>D) Ordainketak</b>	<b>-612</b>	<b>-10.201</b>
4. Inbertsio errealeen erosketa	612	10.201
<b><i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)</i></b>	<b><i>-612</i></b>	<b><i>-10.201</i></b>
<b>VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen emendio/gutxitze garbia (I+II+III+IV+V)</b>	<b>11.427</b>	<b>13.593</b>
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren hasieran	106.367	117.794
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren bukaeran	117.794	131.387

## 2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUA

Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan esaten den moduan, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da, eta bere funtzioak autonomia organiko eta funtzionalarekin betetzen ditu, bere objektibotasun eta independentzia bermatze aldera.

Bere eginkizunetan diharduelarik, ordenamendu juridikoa gordetzen dela begiratuko du eta abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdiak baloratuko ditu, bai eta Administrazioak eraginkortasun handiena lortzea ere bere helburuak betetzean.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legean ezartzen denez, Kontseilua bost kidek osatzen dute, zeinek izen aitortua, gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia eta nafar izaera politikoa duten legelariak izan behar baitute izendatuak izateko.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurari dagokio Kontseiluko kideak hautatzea, zortzi urterako, eta ezin dira berriz hautatu. Auditoretzak aztertu duen ekitaldian, eta Parlamentu honen gomendioari jarraikiz, hiru kide berri ziren.

Osoko Bilkura da Nafarroako Kontseiluaren gobernu- eta erabaki-organoa, kontseilukide guztiak osatua. Kontseiluko kideek lehendakaria eta idazkaria gehiengo osoz hautatzen dituzte. Bertaratze-dieten bitartez eta txosten nahiz irizpenen egile gisa jarduteagatik ordainsarien bitartez jasotzen dute ordainsaria Nafarroako Kontseiluko kideek.

## 3. GEHIGARRIA. ARAUDIA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Kontseiluari 2024an aplikatzekoa zaion araudia:

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 8/2016 Foru Legea, ekainaren 9koa, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 2/2024 Foru Legea, martxoaren 13koa, Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 90/2000 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregelamendua onesten duena.

## 4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu jarraian, Kontuen Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaileentzat eta erabiltzaileentzat interesgarri izaten ahal direnak.

### 4.1 AURREKONTU-LIKIDAZIOA

- Hasiera batean, Kontseiluaren aurrekontuak 484.560 euroko gastu eta diru-sarrerak izatearen aurreikuspena jasotzen zuen, eta zenbateko hori bat dator behin betiko aurreikuspenekin.
- Kontseiluaren betebeharrak 296.553 euro egin dute. Betetze-maila ehuneko 61koa izan da, eta osorik ordaindu dira. 2023ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko biko iguera izan dute.
- Aitortutako eskubideek 423.282 euro egin dute. Betetze-maila % 87koa izan da, eta guztiak kobratu dira. Diru-sarrera horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarengandik jasotako transferentzietatik datoz. Horietatik, 413.081 euro gastu arruntak finantzatzera bideratu dira, eta 10.201 euro, inbertsio-gastuetara.

- Taula honetan dago jasota Kontseiluak 2023an eta 2024an izandako gastuen eta diru-sarreen banaketa portzentuala:

Gastuaren izaera	2023	2024	Finantzaketa-iturria	2023	2024
Langileria	56	56	Transferentzia arruntak	100	98
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	44	41	Kapital-transferentziak	0	2
Inbertsioak	0	3			
	100	100		100	100

- Kontseiluak, araudiari jarraituz, 126.729 euroko aurrekontu-superabita itzuliko dio Foru Ogasunari, jarraian azaltzen den eran:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	423.282
Gastuak, guztira	296.553
Aurrekontu-superabita	126.729
<b>Nafarroako Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira</b>	<b>126.729</b>

#### 4.2 EKITALDIKO AURREKONTU-GASTUAK

- Kontseiluko langile-gastuak 166.100 eurokoak izan ziren 2024an: 2023an baino ehuneko hiru gehiagokoak.

- Kontseiluaren 2024ko plantilla organikoa bi lanpostuk osatzen zuten: funtzionario-araubideko legelari batek (lanpostua hutsik dago) eta lehendakariaren idazkari batek, zeina izendapen askeko behin-behineko langilea baita. 2024ko abenduaren 31n, bi langilek ziharduten Kontseiluan lanean: legelari batek, zerbitzu eginkizunetan dagoen Nafarroako Gobernuako funtzionarioa denak, eta lehendakariaren idazkari batek.

2025ean <sup>1</sup>, Nafarroako Gobernuak Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregulamenduaren aldaketa bat onetsi zuen. Horren bidez, legelari nagusiaren postua sortzeko eta betetzeko aukera aurreikusten da, eta izendapen libreko zuzendaritza-lanpostutzat jotzen da hori.

- Kontseiluko kideek irizpenak egiteagatik jasotako ordainsariak 64.125 euro egin dute, eta bertaratze-dietek, 16.985 euro; guztira, aurreko ekitaldian baino ehuneko zortzi gutxiago. Txostenak egiteagatik ordainsariak gastuetako 2. kapituluaren kontabilizatuta daude.

Kontseiluaren jarduera	2023	2024
Bilkura-kopurua (dieta zenbatekoa)	18 (18.490)	17 (16.985)
Jaulkitako irizpenen kopurua (ordainaren zenbatekoa)	39 (86.256)	29 (64.125)

- Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntek 120.253 euro egin dute: 2023an baino ehuneko zazpi gutxiago.

- Inbertsio-gastuek 10.201 euro egin dute; alde handia egon da 2023ko 612 euroen ondoan, altzariak eta ekipamendu informatikoak berritu baitira.

<sup>1</sup>14/2025 Foru Dekretua, otsailaren 26koa, 2025eko martxoaren 14ko 52. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

